



ABANDOKO  
SAN BIZENTE MARTIRIAREN  
PARROKIA

PARROQUIA  
DE SAN VICENTE MÁRTIR  
DE ABANDO

Done Bikendi plaza 3. 48001 Bilbao (Bizkaia)  
T. 94 423 12 96  
parroquia@sanvicentemartirdeabando.org

## EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi”

2023ko urriaren 1a  
Urteko 26. igandea (A)

### Mateo 21, 28-32.

Jesusek esan zion: “Ea zer iruditzen zaizuen. Gizon batek bi seme zituen. Batarengana joan eta esan zion: ‘Seme, hoa gaur mahastira lanera’. Hark erantzun zion: ‘Ez dut nahi’; baina handik berehala damutu eta joan egin zen. Bestearengana ere joan zen aita eta gauza bera esan zion. Eta hark erantzun: ‘Banoa, jauna’; baina ez zen joan. Zuen ustez, bietatik zeinek egin zuen aitaren nahia?” “Lehenengoak”, erantzun zioten.

Jesusek esan zion: “Benetan diotsuet: Zergalariak eta emagalduek zuek baino lehenago sartuko dira Jainkoaren erreinuan. Izan ere, etorri zitzaizuen Joan Bataiatzailea Jainkoaren nahiari dagokion jokabidea azalduz, eta ez zenioten sinetsi; zergalariak eta emagalduek, ordea, sinetsi zioten. Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi.

Eta zuek, hori ikusita ere, ez zarete aldatu: oraindik ez diozue sinetsi.

## AURREA HARTU DIETE

*José Antonio Pagola*

Hain xumea da parabola, non ez baitu ematen Jesus bezalako profeta handi baten dina den. Halaz guztiz, ez da esana Jesusen inguru-minguru korrika dabiltzan haur batzuentzat, baizik tenplura hurbiltzen denean erasoka hartzen duten «*herriko apaiz nagusi eta zaharrentzat*».

Kontakizunaren arabera, bere mahastira lanera joateko eskatu die aitak bere bi semeei. Lehenak zakar erantzun dio: «*Ez dut nahi*», baina ez da ahaztu aitaren esanaz eta han doa lanera mahastira. Bigarrenak prestutasun miresgarriz erantzun dio: «*Bai, banoa, aitta*»; baina dena hitz huts gertatu da. Inork ez du ikusiko mahastian lanean.

Parabolaren mezua argi dago. Jesusi entzuten dioten zuzendari erlijiosoak ere ados dira. Baina, Jainkoaren aurrean, garrantzizkoa ez da «*hitz egitea*», baizik «*betetzea*». Zeruko Aitaren gogoia betetzeko, gauza erabakigarria ez dira hitzak, promesak eta otoitzak, baizik egintzak eta eguneroko bizitza.

Gauzarik harrigarriena Jesusek parabola zeini egokitu dion da. Ezin gogorrago dira haren hitzak. Mateo ebanjelariak bakarrik jaso ditu, baina dudarik gabe Jesusek esanak dira. Jesus bakarrik baliatu ahal zen halako askatasunaz zuzendari erlijiosoen aurrean: «*Garbi diotsuet: zerga-biltzaileek eta prostituituek aurrea hartu dizuete Jainkoaren erreinurako bidean*».

Bere esperientziatik mintzo da Jesus. Zuzendari erlijiosoek «bai» esan diote Jainkoari. Lehenak dira hartaz, haren legeaz eta haren tenpluaz hitz egiten. Baina, «*Jainkoaren erreinua eta haren zuzentasuna bila dezaten*» Jesusek eskatu dienean, sorgor bihurtu dira haren mezuarekiko eta ez dute hartu harako bidea. Eta, Jesusi muzin eginez, «ez» esan diote Jainkoari.

Zerga-biltzaileek eta prostituituek «ez» esan diote Jainkoari. Jende hau legez kanpo bizi da, tenplutik baztertu egin dute. Halere, Jesusek Jainkoaren adiskidetasuna eskaini dienean, entzun egin dute haren deia eta bihotz-berritzera jo. Jesusentzat ez da zalantzarik: Zakeo zerga-biltzaileak, bere malkoz Jesusi oinak busti dizkion prostituituak eta beste hainbat jendek... *aurrea hartu diete* «*Jainkoaren erreinurako bidean*».

Bide horretan aurrea hartzen dutenak ez dira hotsandiko fede-aitorpenak egiten dituztenak, baizik Jesusi bihotza ireki eta, Jainkoaren egitasmoa betetzen saiatze aldera, bihotz-berritzeko urratsak sendo egiten dituztenak.